



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA


2019ko laugarren hiruhilekoa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familien artean konfiantza gutxitu da
- inguruko familien artean gertatu den konfiantza-galeraren antzekoa da
- eta portaera bera dute Frantziako, Alemaniako eta Erresuma Batuko familiek




1 EAEko familien artean konfiantza gutxitu da

2019ko laugarren hiruhilekoan EAEko familien artean konfiantza berriro ere okerragotu (-4 puntu) egin da eta urtea 2015eko lehen hiruhilekotik izan duen balio okerrenarekin (-9) itxi du.

Honi atxikitako grafikoan ikus daitekeen moduan, 2019a urte aldakorra izan da; izan ere, lehen sei hilekoa baikorragoa izan da, eta urteak aurrera egin ahala, mesfidantza handitu da.


Kontuan izan behar da inkesta egiteko garaia azaroan egindako hauteskunde orokorren hurrengo bi asteak izan direla eta horrek emaitzan zuzeneko eragina izan dezakeela. Gainera, nazioarteko gatazka politiko eta ekonomikoek (Brexitak edo AEBko arantzelen gerrak, adibidez) ere eragina dute kontsumitzaileen ezegonkortasunean.



2 | inguruko familien artean gertatu den konfiantza-galeraren antzekoa da

2019ko laugarren hiruhilekoan, EAEko, Estatuko eta EB-28ko familien artean konfiantza okerragotu egin da, baina neurri ezberdinean. EAEko familiek bigarren balio negatiboa izan dute bederatzi hiruhilekoz baikortasuna nagusitu ondoren (hori balio positibotan islatu da). EAEko eta EB-28ko familiek balio negatiboak izan dituzte segidaren hasieratik (2014): EB-28k urteko gainerako hiruhilekoetan izandako antzeko balioa lortu du (-7) eta Estatuko familien artean areagotu egin da mesfidantza azken hiruhilekoan (-10).

Urteko bilakaerari dagokionez, EAEko familien konfiantzan nolabaiteko mesfidantza ikus daiteke (-2; -3 puntu) eta hori nabarmenagoa da Estatuko (-6; -2 puntu) eta EB-28ko (-7; -2 puntu) familien artean, urteak aurrera egin ahala, konfiantza okerragotu egin delako.



* IV. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-28 eta Espainiarentzako. Urria-azaroko batez bestekoa.


3 | eta portaera bera dute Frantziako, Alemaniako eta Erresuma Batuko familiek

2019ko laugarren hiruhilekoan, konfiantzak izan duen beheranzko joera mantendu egin da Frantziako (-6, +1 puntu), Alemaniako (-3, 0 puntu) eta Erresuma Batuko (-10, 11 puntu) familien artean. Hala eta guztiz ere, urte osoko datuari dagokionez, hiru ekonomiek emaitza negatiboa dute, baina portaera okerragoa da Erresuma Batuan (-10) eta Frantzian (-9) Alemanian (-2) baino.

Frantziak, balio negatibotan dagoen arren, urteko laugarren hiruhilekoan hobetzeko joera izan du. Ondorioz, familien konfiantza suspertu egin da (-12 2019ko lehen hiruhilekoan, eta -6 laugarren hiruhilekoan).

Bestalde, Erresuma Batua oraindik ere balio negatibotan dago eta urte osoan antzekoak izan dira datuak herrialdeak bizi duen ezegonkortasun ekonomikoa eta politikoa dela eta.

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* IV. Lauhilabeteko datua behin behinekoa da EB-28 eta Espainiarentzako. Urria-azaroko batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK


- handitu egin da ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko ezertasuna
- eta langabeziaren inguruko igurikimeneke joera negatiboari eutsi diote
- familiako ekonomiaren egoeraren inguruko igurikimeneke okerragotu egin dira
- baina aurrezkiarekin lotutako igurikimena positiboa da
- kanpoko faktoreak kontsumitzaileen ezertasunerako erabakigarriak dira

4 handitu egin da ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko ezkortasuna

Urteko laugarren hiruhilekoan, familien % 43k adierazi du hurrengo hamabi hilabeteotan egoera ekonomikoa gaur egungoaren antzekoa izango dela. Aldiz, % 10ek uste du zertxobait hobea izango dela, eta % 35ek okerxeagoa izango dela.

Hala eta guztiz ere, ekonomia orokorraren inguruko konfiantza-indizea (-17, -7 puntu) okerragotu egin da eta urteko hirugarren hiruhilekoan ikusitako familien igurikimenak okerragotzeko joera mantendu egin da bederatzi hiruhilekoz jarrian positiboa izan ostean.

Testuinguru horren baitan, 2019. urte osorako ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruan EAEko kontsumitzaileek duten konfiantza negatiboa da (-6), eta 2018ko (+3) eta 2017ko (+6) igurikimenekiko okerragotu egin da, eta 2016koaren (-7) antzekoa da. Emaitza horrek agerian utz dezake EAEko familiek egoera ekonomikoa orokorraren inguruko nolabaiteko mesfidantza dutela.




5 | eta langabeziaren inguruko igurikimenek joera negatiboari eutsi diote

Urteko laugarren hiruhilekoan, pertsonen % 30ek aipatu du hurrengo hamabi hilabeteetan langabezia oraingoan antzeko mailatan mantenduko dela (ehuneko -4 puntu), hamar lagunetik batek baino zertxobait gehiagok uste du gutxitu egingo dela (% 12; ehuneko -8 puntu) eta % 41ek uste du handitu egingo dela (ehuneko +12 puntu).

Hala, langabeziaren bilakaerarekin lotuta familiek agertutako konfiantza-indizeak aurreko hiruhilekoan ikusitako joera negatiboari eutsi dio (-22, -15 puntu).

2019. urte osoari dagokionez, langabeziaren bilakaerarekin lotuta EAEko familien konfiantza-indizea negatiboa (-4) da 2014. urtetik lehen aldiz. Zifra horretan eragina izan zezakeen kontsulta egin deneko uneak; izan ere, azaroko hauteskunde orokorren ondorengo asteetan egin zen.




6 | familiako ekonomiaren egoeraren inguruko igurikimenak okerragotu egin dira

Hurrengo hamabi hilabeteetarako familiako ekonomiarekin lotutako igurikimenek balio negatiboak dituzte 2019ko laugarren hiruhilekoan, eta aurreko hiruhilekoak baino baxuagoak dira (-7; ehuneko -5 puntu).

Horrekin lotuta, urteko lehen eta bigarren hiruhilekoetan izan ezik –balio positiboak (+1) edo neutroak izan zituzten (0)–, hurrengo hamabi hilabeteetarako familiako ekonomiaren inguruko igurikimenak negatiboak izan dira aldi guztietan 2014. urtetik (segidaren hasiera).

Hala eta guztiz ere, 2019. urteari dagokionez, EAEko familiek beren familiako ekonomiaren bilakaerarekin lotuta duten konfiantza-indizea oraindik ere negatiboa (-2) da, baina hobetu egin da 2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018 urteekin (-15, -7, -5, -5 eta -4, hurrenez hurren) alderatuta.


Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak



7 | baina aurrezkiarekin lotutako igurikimena positiboa da

EAEko familiek aurrezkiarekin lotuta duten igurikimen-indizeak laburbiltzen du orain arte (azken hamabi hilabeteak) egin duten aurrezkiarekin alderatuta beren aurrezkoa nolakoa izango den (hurrengo hamabi hilabeteotan) galderaren inguruan pertsonak egindako balorazioa 2019ko azken hiruhilekoko emaitzek indize positiboa erakusten eta susperraldia baieztatzen dute, nahiz eta aurreko hiruhilekoan atzerakada gertatu eta urteko hirugarren hiruhilekoan geldialdia izan.

Hala, urteko laugarren hiruhilekoko emaitzak aurrezko aukerei dagokienez EAEko familiek erakutsitako hobekuntza-profila kontsolidatu du, oso negatiboa baitzen aurretik (krisiaren urte okerrenetan) eta, enplegua eta familietako diru-sarreraren oinarria (soldatak, batez ere) suspertu diren heinean, aurrezkoa hobetzen joan da. Hala, urte osorako balioa positiboa da (+2) 2014. urtetik lehen aldiz.



8 | kanpoko faktoreak kontsumitzaileen ezkortasunerako erabakigarriak dira

Urteko laugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzak aurreko hiruhilekoko mesfidantzari eutsi dio eta urtea 2016ko hirugarren hiruhilekotik izandako indize baxuenarekin itxi du.

Kontsumitzaileen konfiantza osatzeko erabiltzen diren lau indize partzialetatik hiru okerragotu egin dira eta, horien artean, nabarmendu beharrekoa da langabeziarekin lotutako igurikimenez izandako jaitsiera (-22, -15 puntu) eta, jarraian, honako hauekin lotutako igurikimenak: ekonomia orokorra (-17; -7 puntu) eta familiako ekonomia (-7; -5 puntu).

Familiak duten aurrezteko gaitasunarekin lotutako igurikimenei buruzkoa da 2019ko laugarren hiruhilekoan balio positibotan amaitu duen indize bakarra (+6; +6 puntu).

Ondorioz, 2019. urte osoak urteko laugarren hiruhilekoko joerari eutsi dio: EAEko familien konfiantza zein hori osatzen duten indize nagusiak (aurrezteko gaitasunaren izan ezik) negatiboak dira.


Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>2019</u>	<u>IH-19</u>	<u>IIH-19</u>	<u>IIIH-19</u>	<u>IVH-19</u>	<u>aldea</u>	
Familien konfiantza	1	1	-2	2	3	-5	-9	-4	▼
Ekonomia orokorra	6	3	-6	2	3	-10	-17	-7	▼
Etxeko ekonomia	-5	-4	-2	1	0	-2	-7	-5	▼
Langabeziaren bilakaera	12	10	-4	4	8	-7	-22	-15	▼
Aurrezteko gaitasuna	-10	-5	2	-1	4	0	6	+6	▲



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- EAEko familiek prezioen igoerak goraka egingo duela aurrez ikusi dute
- erosteko unearekin lotutako indiferentziak bere horretan jarraitzen du
- zertxobait hobetu da “erosketa handiak” egiteko igurikimena
- baina jaitsi egin da etxebizitza erosteko asmoa, eta autoa erostekoarena mantendu
- familiak zuhur agertu dira haien kontsumo-igurikimenei dagokienez




9 | EAEko familiek prezioen igoerak goraka egingo duela aurrez ikusi dute

Bi familiatik batek uste du prezioek aurreko hamabi hilabeteetan igo diren antzera egingo dutela gora (% 54). Ehuneko hori aurreko hiruhilekokoaren (% 53) ia berdina da. Prezioetan igoera handiagoa gertatuko dela aurrez ikusi duten pertsonen taldea igo egin da (% 38) hazkundera mantsoagoa izango dela uste dutenen taldearekin (% 7) alderatuta.

Horren guztiaren ondorioz, hurrengo 12 hilabeteetarako prezioen bilakaeraren inguruko igurikimenak indize negatiboa (-31) izan du eta hamabi hiruhileko jarraian daramatza balio negatibotan.

Hala eta guztiz ere, urte osoa kontuan hartuta, prezioen bilakaera-indizea negatiboa (-20) da, eta ratioa 2018an izandakoa baino zertxobait baxuagoa eta 2017koa baino zertxobait handiagoa (-23 eta -17, hurrenez hurren) da.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?² (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez.


10 | erosteko unearekin lotutako indiferentziak bere horretan jarraitzen du

Oro har, nola baloratzen duzu gaur egungo unea, etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteari dagokionean?

Erosteo unek familiaren gastu-gaitasunaren inguruko gogoeta sortzea du helburu (zer behar dut, zer eskaintza dago, zer eros dezaket...): 2019ko laugarren hiruhilekoan, hiru familiatik ia bik adierazi du erosteo unek ez diola axola (% 61); beste batzuen ustez, unea ona (% 15), edo txarra da (% 24).

Hala, 2019ko laugarren hiruhilekoan, erosteo unearen inguruko balorazio-indizea negatiboa da (-8) hamaikagarren hiruhilekoz jarraian. Hala eta guztiz ere, erosteo unearen inguruko balorazio-indizea oraindik ere negatiboa da urte osorako (-5).

Erosteo unearen balioztapena¹
(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez


11 | zertxobait hobetu da “erosketa handiak” egiteko igurikimena

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola, altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan?

Hurrengo hamabi hilabeteotako erosketak orain arte egindakoen antzekoak izango direla uste duten familien ehunekoa mantendu (% 62; ehuneko -1 puntu) egin da. Aldiz, zertxobait igo da handitu egingo direla uste duten familien kopurua (% 21; ehuneko +4 puntu), eta gutxitu erosketak jaitsi egingo dituztela uste dutenena (% 17; ehuneko -3 puntu).

Etzerako erosketa handiak egitearekin lotutako igurikimen-indizea neutroa (0) da eta, horrenbestez, hobetu egin dira aurreko bi hiruhilekoetako emaitzak (-1 eta -2 urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan). Urte osoko indizeari dagokionez, urteko azken aldiko balio neutroa mantendu du, eta nabarmen hobetu aurreko urteetako datua (-6, -7, -10, -12 eta -12, 2018, 2017, 2016, 2015 eta 2014 urteetan hurrenez hurren).

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsoneen %a)




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

12 | baina jaitsi da etxebizitza erosteko asmoa, eta autoa erostekoarena mantendu

2019ko laugarren hiruhilekoan, gutxitu egin da datorren urtean etxebizitza erosiko dutela uste duten EAEko familien kopurua (% 0,8, ehuneko -1,7 puntu), eta 2017. urtearen amaieratik izandako balio negatiboa erregistratu da. Dena den, urte osoari erreparatuta, familien % 2k uste du (gutxi gorabehera) datorren urtean etxebizitza erosiko duela (% 2,1) eta balio hori azken urteetako baino altuagoa da (% 1,8koa 2017an eta 2018an).

— Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



Ibilgailua erosteko asmoa urteko hirugarren hiruhilekoko baino nabarmen baxuagoa da (% 6,8 eta % 7,2koa, hurrenez hurren), baina urteko lehen seihilekoko datuak baino balio altuagoak erregistratu dira. Hala eta guztiz ere, urte osoko datuei dagokienez, familien % 6,4k adierazi dute datorren urtean ibilgailua erosteko asmoa dutela.

— Ibilgailua erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonek %a)



13 | familiak zuhur agertu dira haien kontsumo-igurikimenei dagokienez

Testuinguru honetan (urteko laugarren hiruhilekoa), EAEko familiek:

- Prezioak argi igoko direla uste dute. Prezioen hazkundeak urteko lehen hiru hiruhilekoetakoa bikoiztuko duela uste dute.
- Erosketa-unearen inguruko beren iritzia mantendu egin da (urteak aurrera egin duen heinean nabarmen okerragotuta).
- Egonkor mantendu den arren, erosketa handiak egiteko igurikimena balio neutroan dago eta aurreko hiruhilekoetako emaitza hobetu du.
- Etxebizitza erosteko unearekin lotutako igurikimena (% 0,8) jaitsi egin da, eta mantendu, baina beheranzko joerarekin, ibilgailua erosteko unearekin (% 6,8) lotutakoa.

Hala eta guztiz ere, 2019. urtea EAEko familien artean mesfidantzarekin amaitu da batez ere honako haueri dagokienez: prezioen bilakaeraren inguruko igurikimenak (-20, +3 puntu) eta, neurri txikiagoan, erosteko unearen balorazioaren ingurukoa (-5, +4 puntu). Erosketak egitearekin lotutako igurikimenak oraindik ere neutroak dira eta aurreko ekitaldietako emaitza hobetu egin da.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2017</u>	<u>2018</u>	<u>2019</u>	<u>I H-19</u>	<u>II H-19</u>	<u>III H-19</u>	<u>IV H-19</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-17	-23	-20	-17	-17	-16	-31	-15	▼
Erosteke unearen balorazioa	-2	-9	-5	-2	-3	-6	-8	-2	▶
Erosketak egiteko igurikimenak	-7	-6	0	3	-1	-2	0	+2	▶


¹ 2014, ICC neurriaren hasiera momentua

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazleak



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2018	2019	I H-19	II H-19	III H-19	IV H-19	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	-2	2	3	-5	-9	▼
• Estatua*	-4	-6	-5	-5	-6	-10	▼
• EB*	-5	-7	-7	-7	-7	-7	▼
○ Frantzia*	-10	-9	-12	-10	-8	-6	▶
○ Alemania*	-1	-2	0	-1	-3	-3	▶
○ Erresuma Batua*	-7	-10	-11	-10	-9	-10	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	3	-6	2	3	-10	-17	▼
• Etxeko ekonomia	-4	-2	1	0	-2	-7	▼
• Langabezia	10	-4	4	8	-7	-22	▼
• Aurrezkia	-5	2	-1	4	0	6	▲
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-23	-20	-17	-17	-16	-31	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-9	-5	-2	-3	-6	-8	▶
• Erosketak egiteko igurikimena	-6	0	3	-1	-2	0	▶
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	2	2,4	2,6	2,5	0,8	▶
• Autoa	5,3	6	6,0	5,5	7,2	6,8	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* IV. hiruhileko datuak urria-azaroko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2018	2019	I H-19	II H-19	III H-19	IV H-19	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	1	-2	2	3	-5	-9	▼
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	6	4	8	6	5	-3	▼
• 40 eta 54 urte bitartean	2	-2	3	4	-5	-10	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	0	-6	0	1	-10	-13	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-7	-8	-9	1	-13	-12	▶
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa/ norberaren konturakoa)	6	1	7	5	0	-7	▼
• Langabea	-8	-8	-7	1	-8	-17	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-4	-6	-4	1	-12	-11	▶
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-14	-13	-10	-5	-15	-22	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	3	0	5	5	-3	-6	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	12	4	9	8	2	-2	▼

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazleak

	IV H – 18	I H – 19	II H – 19	III H – 19	IV H – 19 _p	(azkena)
BPG	2,6	2,2	2,2	2,1	--	III hir.
Familien kontsumoa	2,5	2,2	1,9	1,8	--	III hir.
Afiliazioa	1,9	-0,4	1,3	2,2	2,1	azaroa
Erregistratutako langabezia	-1,1	-1,4	-4,9	0,6	-6,4	azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,4	0,2	0,5	0,5	--	III hir.
Etxebizitzen salerosketa	-12,4	28,4	-7,4	-10,1	--	iraila
Ibilgailuen matrikulazioa	-5,2	4,4	7,3	-16,6	7,4	iraila

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator, dokumentu honetan aipatzen dena familien konfiantzaren indize bezala, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 800 laguni egin zaie.
- Azaroaren 11tik 26ra (2019ko IV. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm